

OREITIA

— ARABA / ÁLAVA —

Oreitia Frantziatik datorren antzinako Donejakue Bidean dago. Gaur egun, Gasteiz udalerrari dago, eta hiriburutik 11 km-ra baino gutxiagora dago. Herrira iristeko, Gasteizen N-104 errepidea hartu behar da Donostiarantz, eta, Ilarratza igaro ondoren, A-3110 errepidea. Errepide horretan, ezkerreko lehenengo irteerak elizaren plazara era-mango gaitu zuzenean.

Gaur egungo izen berberarekin, Mataukurekin batera, hiru budin hesi ordaintzen zizkion Done-miliaga Kukullari, Alfoz de Harazua izenekoaren barruan. Jerónimo Aznar gotzainak *Oreytia* izenez aipatu zuen.

Oreitia se sitúa en el antiguo Camino de Santiago que procede de Francia. Hoy en día pertenece al municipio de Vitoria-Gasteiz, y desde la ciudad, de la que dista algo menos de 11 km, se accede por la carretera N-104 hacia San Sebastián, tomando el desvío de la A-3110 a la derecha tras Ilárraza y siguiendo por ella. La primera salida a la izquierda lleva directamente a la plaza de la iglesia.

Con el mismo nombre actual, junto con Matauco, pagaba tres rejas al monasterio de San Millán de la Cogolla dentro del Alfoz de Harazua, mientras que el obispo Jerónimo Aznar la denomina *Oreytia*.

San Julian eta Santa Basilisa eliza *Iglesia de San Julián y Santa Basilia*

GAUR EGUNO eraikinak bi etapa izan zituen: zazpi aldeko burualde poligonal eta nabearren lehenengo tartea Erdi Aroko eraikinari dagozkie, eta bigarren gorputza, besteak baino zabalagoa, XVI. mendekoa da. Elizpea XVII. mendekoa da, eta sakristia XVI. eta XVII. mendeen artean kokatu behar dugu.


Absidea zortzi nerbioko gangaz dago estalita. Nerbio horiek lore-motiboa duen giltzarritik abiatu eta hosto haragitsuak dituzten kapiteldun zutabeetan oinarritzen dira. Garaipen-arku zorrotza hosto oso naturalistikak dituzten kapirotean oinarritzen da, eta ezkerreko aldekoen artean ilea erditik banatuta duten gizakien bi buru ageri dira. Horien azpian bi pilare konposatu daude, zutabe-erdiekin, erdialdean, eta baketoiekin, alboetan. Nabearren hurrengo tartea gurutze-giltzarria duen ertz-gangak estaltzen du. Zurkaitzak garaipen-arkukoaren antzekoak dira, baina XVI. mendeko eraikinarekin bat egiten duen lekuak, mentsulak mende horretakoak dira. Absidearen zein lehenengo tartearen bilakaerak ukitu gotikoak ditu argi eta garbi. Azken tartea gangarekin estalita dago, eta gurutze erretikulatuaren itxurako nerbio konplexuak ditu.

Tarte horren hegoaldeko horman elizpe erromaniko berantiarra eta portadaren garaikidea den leihatea daude. Portadak aurrera egiten du horma nagusian, harlanduz egindako gehigarri batekin, eta errematatzeko lantza itxurako nerbio konplexuak ditu.

EL EDIFICIO ACTUAL se divide en dos etapas constructivas: la cabecera poligonal con siete lados y el primer tramo de la nave pertenecen a la construcción medieval, mientras que el segundo cuerpo, más ancho que los precedentes, es ya del siglo XVI. El pórtico pertenece al siglo XVII, y la sacristía se sitúa entre los siglos XVI y XVII.

El ábside se cubre con bóveda de ocho nervios que parten de una clave con motivo floral y descansan en columnas con capiteles de hojas carnosas. El arco triunfal apuntado reposa en capiteles de hojas muy naturalistas, y entre los del lado izquierdo asoman dos cabezas humanas con cabello partido. Bajo ellos se disponen dos pilares compuestos, con medias columnas en el centro y baquetones a los lados. El tramo siguiente de la nave está cubierto por bóveda de arista con clave de cruz. Los apeos son similares a los del arco triunfal, aunque en la zona que converge con la construcción del XVI las repisas son ya de este siglo. Tanto el ábside como el primer tramo muestran una evolución que apunta claramente hacia el gótico. El último tramo se cubre con bóveda con complicados nervios en forma de cruz reticulada.

En el muro sur de este tramo se conserva tanto la portada románica tardía como un ventanal contemporáneo a la portada. La portada avanza sobre el muro principal en un añadido con sillería, que se remata con una imposta de



Hegoaldeko altxaera / Alzado sur

Ekialdeko altxaera / Alzado este



rako hostoak eta puntuak dituen imposta dago, Argandoña dagoenaren modukoa. Lau arkibolta zorrotz ditu, barrukoa arku gurutzatuen moldura polilobulatuz apainduta, ekialdeko ukituarekin edo ukitu mudejarrarekin, Dura, Otazu, Argandoña eta Gordoako tailerrarekin lotuta; gainerako arkiboltak baketoi lisokoak dira. Oinarritzat imposta dute; ezkerreko aldean zurtoin irauliz eta bihotz formako hostoz apaintzen da, eta eskuineko aldean, hosto oso naturalistako zurtoin uhinduz.

Janbak ertzean irtenguneak eratzen dituzten kuadriolioekin apaintzen dira. Albo bakoitzean lau zutabe ditu, hiru arkibolten azpian eta bat kanpoko albo bakoitzean, fuste lisoa eta atzapar-harroinak dituena. Kapiteletan historiak adierazten dira, eta landare-apaiigarriak dituzte: ezkerretik eskuinera lau uso ikusten dira, bi erpinerantz aurrez aurre jarrita dauden zurtoinak ziztatzen; aingeru bat dragoi batekin borrokan, San Migelen eta deabruaren gaia,

hojas lanceoladas con puntos, la misma que encontramos en Argandoña. Consta de cuatro arquivoltas apuntadas, la interior decorada con una moldura polilobulada de arcos cruzados, de gusto orientalizante o mudéjar, y relacionada con el taller de Durana, Otazu, Argandoña y Gordo; el resto de arquivoltas son de baquetón liso. Descansan sobre una imposta que se decora, en el lado izquierdo, con tallos vueltos y hojas con forma de corazón, y en el derecho, con tallos ondulantes con hojas muy naturalistas.

Las jambas se decoran con cuadrifolios salientes en su arista. Consta de cuatro columnas a cada lado, tres bajo las arquivoltas y una en cada flanco exterior, de fuste liso y basas de garras. Los capiteles son historiados y vegetales: de izquierda a derecha se ven cuatro palomas, dos de ellas picando tallos afrontadas hacia el vértice; lucha de un ángel con un dragón, el tema de San Miguel y el Demonio; dos dragones afrontados con cola de serpiente; y flores y

Portada / Portada





Portadako kapitelak / Capiteles de la portada

bi dragoi aurrez aurre suge-isatsarekin; eta erliebe laua duten lore eta hosto estilizatuak. Bi zutabeartek *glouton* edo irenslea erakusten dute, eta kapitel geometriko bat sigasagan. Eskuineko aldean kapitel guztiak begetalak dira, erdikoak zurtoin gurutzatuekin eta kiribildura lauekin, eta beste biak zurtoin gurutzatuekin eta kanporantz iraulita dauden hosto haragitsuekin. Zutabeartek begetalak dira, izquierda naturalistakoak.


Portadaren eskuinean leihoa dago, erdi-puntuko arku txaranbelduarekin, kanpoaldeko arkibolta ertz bizikoa dela eta, barrukoa, molduratu. Inposta nahiko hondatuta dago, baina hiru zerrenda horizontaleko moldura baten aztarnak geratzen dira. Kapitelek apaindura begetala dute, hosto zabalak eta oxfordarrak, ezkerreko kanpokoak, eta erroleoak kanporantz, gainerakoak. Fustek lisoak dira, eta harroinak atzpar itxurakoak. Leihoa barrualdean erroleodun kapitelak dituen zutabe parea eta karratu txikiko harroinak soilik ageri dira.

Kanpoaldean, aztarna erromanikoak abside poligonal pilatzen dira. Lehenengo horma-atalean, hegoaldean, leihoa baten gainean deskarga-arku zorrotza ikusten da, oso

hojas estilizadas de relieve plano. Los dos intercolumnios muestran un *glouton* o engullidor y un capitel geométrico con zigzag. En el lado derecho los capiteles son todos vegetales, el central con tallos cruzados y volutas planas, y los otros dos con tallos cruzados y hojas carnosas vueltas hacia afuera. Los intercolumnios son vegetales de carácter naturalista.

A la derecha de la portada se encuentra la ventana, de arco de medio punto abocinada, con la arquivolta exterior de arista viva y la interior moldurada. La imposta está bastante deteriorada pero quedan restos de una moldura de tres bandas horizontales. Los capiteles presentan decoración vegetal, de hojas anchas y festoneadas, el exterior izquierdo, y de roleos hacia afuera, los restantes. Los fustes son lisos y las basas de garras. En el interior la ventana presenta sólo un par de columnas con capiteles de roleos y basas con pequeños cuadrados.

En el exterior los restos románicos se concentran en el ábside poligonal. En el primer paño, en el lado sur, se aprecia un sobrearco apuntado sobre una ventana, apoyado en ménsulas muy deterioradas. Hay restos de las



Hegoaldeko hormako leiboa / Ventana del muro sur

hondatuta dauden mentsuletan oinarritua. Fuste lisoko zutabe erromanikoen eta horien kapitelen aztarnak daude, kapitel horiek kiribildurekin eta gutxi markatutako erroleoekin, baita inposta zatiak ere. Horren gainean, harburu zoragarri batean munstro batek –hotz handak, begi urratuak, ilea eta belarri zorrotzak ditu– emakume bat irensten du; emakume hori ahotik zintzilik ageri da, hanketatik.

Hurrengo horma-atalean Araban kontserbatzen diren idi-begi urrietako bat ikus daiteke, zirkulu zentrokideekin. Barrualdea bost petaloko errosetaz eta erdialdean botoi batez dago apainduta. Idi-begiaren gainean beste harburu bat dago: maskara burusoil bat ahoa oso irekita duela eta mihi luzearekin. Harburu horren eta idi-begiaren artean Lautadako erromanikoaren bitxietako bat dago, xehetasun guztiak agerian dituen zaldunaren irudikapena, lurraldeko bakarra. Zaldiaren irudi biribildua bolaz osatutako uhalak ditu lepoan, eta zingilak, estribua, arnesak, zurdak, isatsa eta hanketako ferrak oso ondo zehaztuta daude. Baliteke zaldiaren burua multzo osoan apur bat txikia izatea. Zaldunak, itxura harroarekin, ekiaderantz begira, lantza banderatxoarekin eta almendra itxurako ezkutua ditu, kaskoa,

columnas románicas de fuste liso y sus capiteles vegetales con volutas y roleos poco marcados, así como trozos de imposta. Sobre él, un magnífico canecillo en el que un monstruo –con grandes dientes, ojos rasgados, pelo, y orejas puntiagudas– engulle a una figura femenina que cuelga de su boca por las piernas.

En el siguiente paño se ve uno de los pocos óculos románicos que se conservan en Álava, con círculos concéntricos, el interior decorado con rosetas de cinco pétalos y botón en el centro. Sobre el óculo hay otro canecillo: una máscara calva con la boca desmesuradamente abierta y larga lengua. Entre este can y el óculo se encuentra una de las pequeñas joyas del románico de la Llanada, la representación de un caballero exquisitamente detallado, como no hay otro en el territorio. La figura redondeada del caballo se engalana con un aparejo de bolas al cuello, y se detallan perfectamente las cinchas, el estribo, los arneses, las crines y la cola, e incluso las herraduras de sus patas. Quizás la cabeza del equino sea algo pequeña dentro del conjunto. El caballero, de altivo porte y mirando hacia el Oriente, lleva lanza con banderola y escudo almendrado,



Erlieba zaldizkoarekin

Relieve con jinete



Absideko harburua

Canecillo del ábside

ezpata gerrian, eta ezproiak, eta multzo osoko osagairik hondatuena burua den arren, kokospekoa argi eta garbi ikusten da. Araban zaldunaren beste irudikapen batzuk daude, hala nola Armentiakoak, Margaritaren bataiarria, Tuestako San Martin zaldi gainean eta zagitari ugariak –Konstantinoren irudiarekin lotuta dagoela ere esan izan da, jarrera imperiala dela bide–. Hala ere, zaldun hori Compostelara erromes doan zaldunarekin lot daiteke, eta hori oso logikoa da, Oreitia Donejakue Bidean baitago. Gainera, zalduna sartalderantz doa, Galiziarako bidean.

Hurrengo horma-atalean beste harburu bat dago, aker baten irudikapen oso errealistarekin. Erdiko aldean leho guztiz gotikoa dago, eta, horren gainean, harburua age-ri da, ahoa erdi-irekita duen maskaroiarekin. Hurrengo horma-atalean munstroaren irudia duen beste harburu bat dago, jarrera exhibicionistarekin, ahoa irekita eta pertsonaia bat jaten; azken horren atzealdea soilik ikusten da. Hurrengoan irtengune handia duen upela edo biribilkia ikusten da, bi zulorekin, nahiko arraroa, eta azken horma-atalean beste maskaroi bat dago, begi urratua, sudur luzea eta adierazpen krudela erakusten dituela.

Erretaula nagusiaren atzealdean pintura gotikoak dokumentatuta daude, xv. mendekoak. Oreitiako eliza osoa inertzia-erromanikoari dagokio, kasu batzuetan go-tikoarekin nahasita.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: DGMA

casco, espada al cinto, y calza espuelas, y, aunque lo más deteriorado del conjunto sea su cabeza, se aprecia perfectamente la perilla. En Álava hay otras representaciones del caballero, como las conocidas de Armentia, la pila de Margarita, el San Martín a caballo de Tuesta o los abundantes sagitarios –incluso se habla de la filiación con la imagen de Constantino a caballo por su porte imperial–. Sin embargo, este caballero se puede relacionar con el caballero peregrino a Compostela, algo perfectamente lógico dado que Oreitia se enclava en pleno Camino de Santiago, apoyando tal relación con el hecho de que cabalga hacia el poniente, rumbo a Galicia.

En el siguiente lienzo se observa otro canecillo con una representación muy realista de un macho cabrío. En el ochavo central se abre una ventana plenamente gótica, y sobre ella aparece un can con mascarón de boca entreabierta. El siguiente paño cobija otro canecillo monstruoso en actitud exhibicionista, con las fauces abiertas devorando a un personaje del que se ve el trasero. En el siguiente hay una especie de tonel o rollo muy saliente, con dos orificios, bastante extraño, y en el último lienzo otro mascarón de ojos rasgados, nariz alargada y expresión cruel.

Existen documentadas tras el retablo mayor unas pinturas góticas, de finales del siglo xv. Todo el conjunto de la iglesia de Oreitia muestra un románico de inercia en ocasiones mezclado ya con el gótico.

Texto y fotos: REA - Planos: DGMA

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 128; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 324; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 68-69, fig. 30-31; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997c, I, pp. 202-203; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 21, 62; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 53; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 557-560, fig. 807-818; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 57, 60-61, 69; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, p. 171-173; VENEGAS GARCÍA, C., 1994, pp. 75-76.